

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
 PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
 ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
 ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Elizalde kontseilaria Agoitzen bildu da Pirinioaurreko toki-ordezkariekin

*Departamentuaren politikak aurkeztu eta eskualderako estrategia nagusiak partekatu ditu*

Asteartea, 2018.eko azaroak 13

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria den Isabel Elizalde gaur goizean bildu da Pirinioaurreko etorkizuneko eskualdeko toki-erakundeetako ordezkariekin, Agoitzeko Udaletxean, Departamentuak legegintzaldian zehar garatutako politikak eta Nasuvinsak eskualde-mailan eskainitako zerbitzuak aztertzeko, bereziki Lursareak, lurraldearen eta iraunkortasunaren agentziak, garatutako ekintzak.



Elizalde kontseilaria bileran parte hartu dutenekin.

Topaketan hogeitun bat lagun elkartu dira, eta baita ere parte hartu dute Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari orokorrak, Ignacio Gilek, eta Toki Administrazio zuzendari nagusiak, Xabi Lasak; Lursarea, lurraldearen eta iraunkortasunaren Agentziako ordezkariak nahiz Cederna-Garalurrekoek. Besteak beste, bertara hurbildu dira Iratiko Mankomunitateko lehendakariordea eta honako Udaletxe hauetako ordezkariak: Agoitz, Artzi, Ibargoiti, Itzagaondo, Lizoainibar / Arriasgoiti, Longida, Orotz-Betelu, Urraulgoiti eta Urrotz.

Elizaldek landa - garapeneko, ingurumeneko eta toki-administrazio printzipioak eta jarduera-ildoak aurkeztu ditu. “Iraunkortasuna eta lurralde-oreka dira aurrean ditugun gakoak eta erronka nagusiak. Ahalegin handia egin dugu landa-garapeneko, ingurumeneko eta toki-administrazio aurrekontu-



Elizalde kontseilaria zuzendari nagusiekin.

zuzkidura gehitzeko. Ekonomia zirkularerako trantsizioak aukera gehiago eskainiko dizkie zuek ordezkatzeko dituzuen bezalako herriei”.

Ildo horretan, eta bileran aurkeztutako gaiei erantzutearren,

"zeharkako politikek duten garrantzia azpimarratu du, herri txikienei biztanle gehiagoko zonetako enpresa zerbitzu-maila eskaini ahal izateko".

Toki-erreformari dagokionean, Toki Administrazioaren zuzendari nagusiak, Xabi Lasak, adierazi du Foru Gobernuak Nafarroako Kontseiluaren irizpenaren zain dagoela. Beranduago, udazken honetan zehar, legea eztabaidatzen eta izapidetzen hasiko dira Nafarroako Parlamentuan.

Behin bilera amaituta, Agoitzeko alkateak, Unai Lakok, Udaletxeko zerbitzuak berrantolatze proiektuaren eta horren birmoldaketaren xehetasunak azaldu ditu; Tokiko Azpiegituren Programaren kargura egingo dira. Gainera, Udaletxean bertan, erakusketa-espazio bat prestatuko da Irati SA enpresaren berri emateko; hau da, XX. mendearen lehen erdialdeko enpresa garrantzitsuenetakoa, 1907an sortua Aezkoako Domingo Elizondok.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma Nafarroan hamabi eskualde sortzea planteatzen du, tartean Pirinioaurrea eskualdea, 5.539 biztanlerekin eta 12 herrirekin: Agoitz, Altzibar, Elo, Ibargoiti, Izaqoandoa, Lizoain, Longida, Orotz-Betelu, Untzitibar, Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Urrotz.